



Behargin bat larri zauritu da Bergaran gertatutako lan istripu batean

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 24/05/2024

Langilea, kamioi bat zamatzen ari zela, zama gainera erori eta azpian harrapatuta geratu da

Atzo arratsaldean lan istripu larria gertatu zen Bergarako Embalan3 enpresan. Enpresako langilea, kamioi bat zamatzen ari zela, zama gainera erori eta azpian harrapatuta geratu zen. Une honetan langilea oso larri zaurituta dago erietxean, LAB sindikatua jakinarazi duenez. Dirudienez, larriki zauritutako langilea bakarrik ari zen egiten prozesu guztia. Zarata handi bat entzutean, kabinan zegoen garraiolaria jabetu zen langileari zama gainera erori zitzaiola.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/behargin-bat-larri-zauritu-da